

J. A. ARANA MARTIJA.—*Resurrección Maria de Azkue*. Colección «Temas vizcaínos», año IX, Serie azul, Arte y Literatura, 103-104 zenb. Fotos: German G. Tejedor y Archivo de Euskaltzaindia y del autor. Bilbo, 1983.

Gure historian euskararen alde gehien eman zuen gizonaren biografia da, euskaraz eta gazteleraz idatzia. R. M. Azkue zenak ondo merezia zuen holako zabalkundezko liburu bat. Bestalde, nor biografiazailerik hoberik euskal idazle eta musikariz gainera gaur egun Azkue Bibliotekaren ardura daroan Jose Antonio Arana Martija baino?

Hara hemen liburuaren edukina: 1 — Eusebio Maria Azkueren senideak; 2 — lehen urteak; 3 — euskarazko katedra Bizkaiko Institutoan; 4 — Azkueren etxeko bizitza; 5 — Azkue apaiza; 6 — argitarazle, idazle eta hizlari; 7 — Azkue folklorista; 8 — Azkue musikaria; eta 9 — Azkue hizkuntzalaria.

Liburuaren ehun eta hamar orrialdeak ondo hornituak datoz, bai informaketaz eta baita ere irudiz.

J. S. M.

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Otsoaren bidea*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1982.

Belatzen baratza saileko 3. liburua. Bertan, «Eneko Otsoak, Harpeko Agurearen Erhaztuna hartu zuenetik bere mystagintzaren bide luzea lehen-bait-lehen hasi behar zuela konventzuta zegoen». Eta aintzinako aldiari heltzen dio. Lau erhaztunetatik lehena da eta honen bidez abiatuko, eten gabeko etorrian eleberri kondairagarri bati loturik liburu berriak sortzeko beste hiru burutu arte. Horregatik, *Otsoaren bidea* deritzaon hau geroko *Ortziren zaldiak*, *Garaziko oihanaren thauma* eta *Sua ez da hiltzen* hirukoitzaren giltzia da.